

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko urtarrilaren 30a. IX. urtea. 2.473. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Eskarmentua garaipen bihurtu dute eskualdeko hiru triatloilarik

Espainiako Neguko Triatloi Txapelketan lortutako emaitzekin gustura daude Egoitz eta Ilazki Zalakain anaiak eta Jose Luis Zabala ◊5



Egoitz Zalakain, ezkerrean, elite mailako podioan. HITZA

Goi tentsioko linea «atzerapausoa» dela dio plataformak

Autopista Elektrikoaren Aurkako Plataformak batzarrera deitu ditu Leitzaldeko herritarrak; oraindik ez dago zehaztuta linearen trazatua ◊7

Bizpahiru hilabete itxaron beharko dute gazteluarrek bidea konponduta egoteko

Gazteluko eta Leaburu-Txaramako udaleko ordezkariekin eta herritarrekin bildu da Gipuzkoako Foru Aldundia; errepidearen azpiko lurak berriro ez mugitzeko kontrahorma eraikiko dute ◊3

Gastronomia turismoan erreferentzia bihurtu nahi dute Tolosaldea

Tolosako Udala eta Tolosaldea Tour gaurtik igandera arte Madril en egiten den nazioarteko Fitur azokan izango dira ◊2

Migel Mari Elosegik ordezkatuko du Leitza bertso txapelketan

Guztira 31 bertsolari lehiatuko dira Nafarroako txapela janzteko asmoz; Elosegik «ongi pasatzera» doala azaldu du ◊7



LITERADIOS

→ **Jende andana atsauretuta.** Leitzako ihoteak hurrengo urtera arte agurtu dira. Azken eguneko protagonista nagusiak atsaureak izan dira (irudian), eta beren kalejirak alaitu du herria. Inauteri giroak, baina, ez du etenik Leitzaldean zein Tolosaldean: Aresok, Berastegik eta Lizartzak hartuko dute lekukoa etzitik hasita. ◊6

Gastronomia turismoa sustatuko du Tolosaldea Tour-ek, Fitur azokan

Gaurtik igandera bitarte izango dira Tolosako eta Tolosaldeko ordezkariak, Madrilgo turismo azokan

Itzea Urkizu

Gastronomia turismoa sustatzeko helburuz, eta Tolosa eta Tolosaldea esparru honetan erreferentzia izan daitezen, Madrilgo Fitur erakustazokan beren txokoa izango dute Tolosako Udalak eta Tolosaldea Tour-ek, bihurtik igandera bitarte.

Nazioarteko turismo azoka horretan, touroperadore eta agentziei eskualdea ezagutaraziko diete; Tolosaldeko informazioz beteriko *pendrive* batzuk prestatu dituzte, besteak beste, horretarako. Modu honetara, eta gastronomia oinarri hartuta, iaz martxan jarritako turismo esperientzien egitasmoa komertzializatzeko lanetan ariko dira Fitur-en, urte osoko agenda betetzeko asmoz.

Bide beretik, Euskadi erakustazokan izango dituen postuetan ere, eskualdeko eskaintzek izango dute tarterik. Batetik, gastronomiaren atalean, Tolosa Gourmet produktuen berri emango dute; Tolosako Babarrunaren Bi-



laz abiarazitako Tolosako Babarrunaren Bidaia harrera ona izan du. HITZA

daia, Gorrotxategi museoa eta beste hainbat egitasmo.

Halaber, Euskadiko Touring izeneko postuan *Euskadiko Bihotza* gida eskuragarri izango dute bertartuek, eta besteak beste, Topic zentroaren eta Txindokiko Itzalaren berri izango dute.

Tolosaldea aldizkaritan

Duela 10 urte, Eumedia argitaletxeak sortu zuen *Origen* aldizkaria. Bi hilabetez behin plazaratzen dute, eta 40.000 irakurle inguru ditu, papereko edizioa eta edizio digitala bateratuz gero.

Azken egunotan, aldizkari hainbat kazetari Tolosaldeko herrietan barrena dabilta, erreportaje bat osatze bidean.

Gastronomiari eta bertako produktuei begira jarri dira kazetariak, eta horrela beraz, «Tolosaldeko produktuen aberastasuna nahiz kalitatea» beren lanean islatzea izango dute helburu; Tolosako Babarruna, Ibarrako Piperrak, Tolosako teila eta zigarrotxoak, xaxuak nahiz txuletak hizketa gai izango dira, beraz, *Origen* aldizkari orrialdeetan.

• tolosa@hitza.info

Estralurtarrak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Dakizuen bezala, estatuek inkesta ugari egiten dizkigute urtero. Nonbait, gure goiko gobernatzaile jakintsu eta prestatuek, gure beldur eta tripa-ko minen zergatiak jakin nahi dituzte, honela, gure onurarako, gobernatzeko modu egokiena aurreratzen dute... Edo agian boto ziztrin bat gehiago nola lortu jakin nahi dute soilik, eta kito!

Inkesta hauetako galdera klasiko bat, «Zein da zure kezkarik handiena gaur egun?» izaten da, eta harrigarria dirudien arren, erantzun ohikoetako bat «beste planeta batetik etorritako izakien inbasio bat» izan ohi da.

Jende askori ez zaio axola nonbait, etxerik gabe geratzea, gaixotasun larri bat izatea edo bikotekidea topatzea. Jendea estralurtarren inbasio baten beldur da. Horri buelta emaiok!

Estralurtarren gaiari buruz ari nintzen hizketan, orain gutxi, taberna ilun batean, garagardo oraindik ilunago baten aurrean. Norekin? Beste biologo batekin, noski! Norekin bestela!

Ene irakurleek ez badakite ere, biologiarene arlo bat bada, exobiologia deritzona; beste planetetako bizitza posibleak aztertzen dituen. Bai, bai, estralurtarretaz ere badugu biologo zer esana! Gehiago hitz egiten utziko baligute... Beraz, gaur hartu zuen teleskopiorik hoberena, irudimena, eta goazen beste planetetan zehar bidaiatzera, agian euskaldun bat ere topatuko dugu galaxia urrunen batean!

Beste planeta bateko bizitza azaltzeko, hiru hartzen ipuina hartu behar dugu adibide moduan. Laburki esanda, eta nire irakurle txikiak baimenarekin, hiru hartzen etxean neska ilehori bat sartzen da eta bereaiek mahai gainean utzitako ontzietan dagoen zopa dastatzen hasten da. Ontzi handiko zopa beroegia dago, eta ontzi txikiko zopa hotzegia; er-tainekoa, berriz, temperatura egokian dago, eta gustu handiz jaten du.

Bada, honek azaltzen du, beste

planeta batean bizitza egotearen lehen legea.

Planeta bat sortzean, izar batetik gertuegi badago, temperatura handiegiak izango ditu bertan, ez da likidorrak izango, eta, noski, bizidunak egotea nahiko zaila izango da. Aurkakoa gertatzen da, izar batetik urrun dagoen planeta izoztu eta gogor batean. Baina izar batetik ez oso urrun eta ez gertuegi ere, planeta bat baldin bada, bizitza edukitzeko aukera txiki bat du, bertan elementu likidoak eta agian ura ere egongo baita! Gure Lur planeta maitea horrelaxe kokatua dago, bere izarra den eguzkitik ez urrunegi ez eta gertuegi. Hiru hartzen ipuinean, nes-kari atsegin zitzaion zopa bezala.

Unibertsoan zehar bizitza izan dezaketean planeten bila dabilta zientzialariak planeta mota hau bilatzen dute, izarretik ez gertuegi eta ez urrunegi dagoena.

Orain Marte planetan paseatzen dabilen *Curiosity* robota, ur bila dabil zoro moduan. Marte ere, bizitza izateko leku egokian dago, ez urrunegi eta ez gertuegi, gure planeta bezala, baina Marten gaur egun ez dago urrik. Horren garrantzitsua al da ba ura? Dirudenez bai. Gure planetan ez bada urrik, ez dago bizitzarik, eta jakinda unibertsoan dauden elementu kimikoak gure planetako berak direla, ziurrenik urrik gabe ez da bizitzarik. Nire irakasle batek zioen bezala, munduko gosea ezabatzeko, herrialde guztietara egune-ko urak iritsi behar du; elikagai begetalak landa daitezke. Gosea urarekin ezaba daiteke.

Orain milioika urte, gure basoetan ibiliko ziren lehen euskaldunak. Gauean zerura begiratzen zuten eta izarrei begira liluratsen ziren. Haien zat, izar bakoitza su bat izango zen eta honen bueltan, beste gizaki batzuk egongo ziren. Ez gara osok aldatu, noizean behin zerura begiratzean, izar hoietako bakoitza, gure eguzkiaren antzeko izar bat dela pentsatzen dugu, eta haren inguruko planetetan ere litekeena da beste bizidun batzuk izarrei begira egotea.

Izaki haiek agian lau hanka dituzte, agian urtarrak dira, agian hegariak, edo agian lurpean bizi dira erabat, eta ez dute inoiz aire-rik arnastu. Baina bizidunak dira eta beren artean ere biologoak egongo dira!

Noizbait espaziontzi bat eraikiko balute eta gure planeta ezagutu, gizakia beldurtu animalia berezi honekin beldurtu egingo lirake eta ziur isatsa hanka artean sartuta alde egingo luketela, gurekin ezer jakin nahi izan gabe. Bereiztat okerrago, ez baitituzte Tolosako inauteriak ezagutuko!

Zuek jarraitu ekokulturaren zutabe xume hau irakurtzen, zutabe honetan ipintzen dena ez baita eraldatua.

→ Laburrak

Tolosako Korrika batzordeko bilera, bihar

EUSKARA Martxoaren 14an hasiko da Korrika festa, Andoainen. Egun berean pasako da Tolosatik, eta batzordea hasi da, jada, lanean. Bigarren bilera egingo dute, bihar, eragileekin, Lizardi kultur elkartearen egoitzan, 18:30ean.

Aiz Orratzen jaialdirako sarreraren salmenta

GIZARTEA Aiz Orratz elkarteak urtero antolatzen duen inauterietako haur jaialdia eta mozo-rra lehiaketa larunbat honetan izango da, Leidor aretoan. 16:30etik aurrera. Ikuskizunaz gozatu ahal izateko sarrerak, larunbatean bertan eskuratu ahal izango dira, Leidorreko leihatilan, 11:00etatik aurrera. Iazko gisa berean, euro bateko prezioa izango du sarrera bakoitzak.

'Hiru pauso, hiru norabide' Bidaia-ien Txokoan

GIZARTEA Tolosako Antxon Banderes Bidaia-ien Txokoan dokumental trilogia baten lehen saioa izango da gaur: *Hiru pauso, hiru norabide*. Duela 15 urte, sei lagunek hiru hilabete behar izan zituzten 2.000 kilometro eskiatzen egiteko; Pablo Dendaluzetolosaldeko horren inguruan egindako dokumentala izango da, beraz, ikusgai. Lehen saioan, Oslo-tik Nordkapp-erako (Norvegia) etapa ezagutu ahal izango da. Sarrera doakoa izango da, eta 20:00etan hasita, proiektzioaren ondoren, mahai inguru edo eztabaida izango da bertartuen artean.

↓ Iragarki laburrak

ESKUALDATZEA

Taxi zerbitzua. Zizurkilen, taxi lizentzia eta autoa eskualdatzen dira. Interesatuak, deitu 608 575900 telefono zenbakira.

SALGAI EDO ALOKAIURAN

Ileapaindegia. Villabonan, ileapaindegia saldu edo alokatuko duke. Interesa duen edonork, dei dezala 630 09 90 92 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gazteluko udal ordezkariak Adolfo Sesmarekin, herritarren aurrean iragan ostegunean. A. IMAZ

Gazteluko bidea konpontzeko lanak, «bi edo hiru hilabeterako»

Adolfo Sesma Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria herritarrekin elkartu zen iragan ostegunean, argibideak emateko

Gazteluko Udalak herriko pisten egoera hobetzeko eskatu dio diputazioari

Asier Imaz Gaztelu

Duela bi asteko eguraldiak, kalte handiak utzi ditu Gaztelura doan bide nagusian, Leaburuko Mahala baserriaren inguruan. Urtarrilaren 20an, GI 3881 errepidea itxi egin behar izan zuten, nahiz eta ondorengo egunetarako berriro zabalik izan. Konpontze lanetan dabilzten teknikarien esanetan, «bidea erabat konpontzeko, oraindik bi edo hiru hilabeteko lana gelditzen da». Errepidearen gainbeherak, gazteluarren artean zeresana piztu zuen, zeresana eta batez ere, kezka. Euren etxetara joateko, edo bertatik jaisteko, azken aukera bezala, bizilaguna

nak pistetatik bideratu zituzten: Lizartzako eta Orexako pistetatik. Hauen egoera, ordea, ez da hobereena, eta foru aldunditik azaldu bezala, «egun dauden bezala, ezin dira alternatiba kontsideratu».

Gazteluko Udalak egoera honen aurrean, herritarrekin elkartzea erabaki zuen. Euren asmoa, errepidearen aferaren inguruan egindako gutzia gazteluarrei azaltzea zen, aurrera begirako urratsekin batera. Ahalik eta informazio zuzenena zabaltzeko helburuarekin, Adolfo Sesma Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideen mantenurako teknikaria gonbidatu zuten Gaztelura.

Adolfo Sesma, udal ordezkariak eta herritarrek iragan ostegunean elkartu ziren udaletxean. Gazteluarren erantzuna gaiak herrian sortu zuten kezkaen tamainakoa izan zen: 40 lagun inguru joan ziren bilerara, eta bilkura aretoa txiki gelditu zen. Zutik, edo aretotik kanpo egon arren, 30 minutu inguru iraun zituen bilera jarraitzeko ez zen inongo arazorik egon.

«Arazo potoloa»

Sesmak arazoa identifikatutik dutela esan zuen, eta baita irtenbidea izan daitekeena ere; hala eta guztiz ere, «hor beheran arazo potolo bat» dutela esan zien Gazteluko bizilagunei: «Errepidearen azpian dauden igeltsuak dira arazoaren sorburua. Ur kopuru asko erori denez oso egun gutxitan, mendi hegalkak behera egin du, eta irtenbidea hori gelditzea izango litzateke». Horretarako, harriekin kontrahorma bat egiteko asmoa dutela azaldu zuen diputazioko teknikariak, «baina

errepidetik 30 metrora kokatua, eta oso sakona, ez baitakigu hor azpian zenbat igeltsu dagoen».

Hainbat herritarren esanetan, errepidea egin aurretik, erori den lekuan igeltsua ateratzen zuten. Ondorioz, mendiaren azpia «sator zuloz josita» egongo balitz bezala dago. Kontrahormak eta bere kokapenak eta sakontasunak mendi hegala gelditzea izango dute helburu, berriro tamaina horretako lur mugimendurik egon ez dadin.

Adolfo Sesma esanetan, Gipuzkoako Foru Aldundian gaiak lehenetsun gutzia dauka, eta horregatik, martxan jarriko den prozesua larrialdizkoa izango da: «Datu topografikoak hartuta daude; bi egunetan proiektua egingo da, eta ondoren, lau edo bost enpresei aurkeztuko zaie lehiaketarako eskaintza egin dezaten. Erabakia segidan hartuko da, baina hori gutzia kontuan hartuta ere, bi edo hiru hilabeteko lana dago aurretik».

Bilerara joan ziren herritarrek

euren kezken inguruan galdetzeko aukera izan zuten. Berriro txarrena gertatu eta errepidea itxi beharrean suertatuko balitz, pisten egoera hobetu beharko litzatekeela aipatu zuten. Udal ordezkariak, eta Adolfo Sesma bera, ados agertu ziren iritz honekin. Patxi Iturriaga Gazteluko zinegotziak diputatuarekin gai honen inguruan hitz egiten egon zirela esan zuen: «Gutxienez, Lizartzako pista hobetu beharra dagoela esan genion. Egun hauetan, euren pistak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute, eta ados agertu ziren. Bilera ondo joan zen, eta lehenetsuna errepide nagusiari emango badiote ere, paraleloki pista hobetzeko asmoa agertu zuten».

Errepidea berriro ixtea tokatzen baldin bada, komunikazioa hobetu beharko litzatekeela ere aipatu zuten bizilagunek, autoa hartu orduko jakin dezaten pasatzerik izango duten ala ez; bide nagusia ala pista hartzea, alegia. Adolfo Sesma arlo horretan hobetu beharra aitorztearekin batera, komunikazioa hobetzeko konpromisoa hartu zuen.

Langileen lana

Batzarraren amaieran esker oneko hitzak nagusitu ziren. Herritar batek herriko zein foru aldundiko politikarien lana azpimarratu zuen, 24 orduz arazoaren gainean egoteko gaitasuna erakutsi zutelako. Horrez gain, bidea konpontzen ari diren langileen lana eskertu zuen: «Baldintza oso txarretan aritu dira lanean; gauez eta eguraldi oso txarrek. Errespetu gutzia erakutsi behar zaie langileei, lan txalogarria egingen ari baitira».

Alfonso Sesma foru aldundiko teknikariak, bere aldetik, eskerrik eman nahi izan zizkien Leaburu-Txaramako eta Gazteluko udal ordezkariak, eta oro har herritarrei. Bidea zabalik egon dadin egin beharreko gutzia egingo dutela ere azaldu zuen. Patxi Iturriagak, udalaren izenean, herritarrei erakutsi duten pazientziagatik eta batzarrera agertu izanagatik eskerrak eman nahi izan zizkien.

• ibarraldea@hitza.info



Errepidea hobetzeko plantxa metalikoak sartu zituzten iragan ostegunean. Eskuinean, Gaztelura doan bidearen egoera atzo arratsaldean. A. IMAZ

Kaldereroen gerizpean, jai giroa zabalduko da hainbat herritara

Anoetan eta Iruran gaur egingo dituzte entseguak, 18:30ean, Mikelasagastin eta Kulturunean

Asier Imaz

Eskualdeko kaldererorik ospetsuenak Tolosakoak baldin badira ere, zartagina eta mailua eskuetan dituztela, pixkana-pixkana eskualdean zabaltzen ari dira. Anoetan, Ibarren, Iruran eta Zizurkilaren ostiralean irtengo dira kalera, herrian barrena kalejiran euren poza zabaltzeko asmoz.

Iruran eta Anoetan, dena prestatzeko, azken entseguak gaur egingo dituzte. Iruran jaiak Loatzo musika eskolak eta udalak antolatzen dute, eta herritarrei parte hartzeko mozorroturik agertzeko eskatu diete. Entseguari dagokionez, musika eskolan elkartuko dira 18:30ean, eta zarata ateratzeko ohiko tresneria norberak eramatea eskatu dute. Anoetan, prestaketa lanetan herri ikastola, udala eta Loatzo dabilta, Txolarrerri Irratiaren babesarekin. Entsegua Mikelasagasti auditorioan

egingo dute, 18:30ean. Antolatzaileek azaldu dutenez, entseguan HH3tik aurrera umeek izango dute parte hartzeko aukera. Egunean bertan, aldiz, txikienek ere izango dute kaldereroz mozorroturik jaiarekin bat egiteko parada, hori bai, gurasoak ondoan dituztela.

Tolosan, Urdiña Txiki elkartearen eskutik iritsiko dira kaldereroak. Esker oneko hitzak izan dituzte Ondarzal, Migel Angel Moreno, Enrike Arostegi eta Tolosako herriarentzat, urte guzti hauetan jaiak aurrera ateratzen egin duten ekarpenagatik. Aurtengoan ere, guztiak gonbidatu dituzte larunbateko festara, guztien artean inauteriei ongietorria ematera.

Kontzertuak

Kaldereroetako ohiko kalejirez gain, Sanblasipiko eta Ibarako gazte asanbladek kontzertuak antolatu dituzte larunbaterako, elkarlanean. Arratsaldean, bi talde ariko dira Tolosako Otsabi gaztetxean, eta iluntzean, 22:00etatik aurrera, Ibarako gaztetxeak hartuko du lekukoa. Bertan, hiru talderen musika entzuteko aukera izango da.



Azken urteetako ohiturari jarraituz, Hauspoak antolatuko ditu Ibarren kaldereroak. Irudian, iazko jaiak. HITZA

↓ Egitarauak

ANOETA

Otsailak 1, ostirala

■ **18:00.** Anoetako plazan elkartuko dira, euria egingo balu, frontoian.

■ **Ondoren.** Loatzoko txarangak alaiturik kalejira egingo dute. Amaieran, txistorra opilak banatuko dituzte parte hartzaile guztien artean.

IBARRA

Otsailak 1, ostirala

■ **18:15.** Herriko plazan elkartuko dira.

■ **Ondoren.** Herrian barrena itzulia egingo dute. Ibilbidea: Ibarako plaza, Argindegia, anbulatorioa, Euskal Herria kalea, Idoiaga eta San Inazio auzoa, berriro ere San Bartolome plaza itzuli aurretik.

Otsailak 2, larunbata

■ **22:00.** Gaztetxean kontzertuak: Erasoka, Mad Skins eta Friday Crew.

IRURA

Otsailak 1, ostirala

■ **18:00.** Kulturunean elkartuko dira.

■ **Ondoren.** Kalejiran abiatuko dira herrian barrena. Amaitzeko, merienda egingo dute. Antolatzailuek parte hartzeko mozorrotu egin behar dela esan dute.

TOLOSA

Otsailak 2, larunbata

■ **Arratsaldean.** Otsabin gaztetxean kontzertuak: Broken Faces eta Brutal Calling.

■ **18:45.** Plaza Zaharrean elkar-

tuko dira konpartsako kide guztiak, eta herrian barrena eurekin ibiliko diren herritarrek.

■ **19:00.** Pregoia irakurri ondoren, kalejiran abiatuko dira. Zerkausia eta Korreo Kalea zeharkatu ondoren, Gorriti plazara joango dira. Kale Nagusirako bidea hartu ondoren, Plaza Zaharrean amaituko dute itzulia.

ZIZURKIL

Otsailak 1, ostirala

■ **15:00.** Pedro Mari Otaño ikastetxeko ikasleak, Haur eta Lehener Hezkuntzakoak, herrian barrena kalejira egingo dute. Ondoren, Aurrera plazan amaitzeko.

■ **16:15.** Aurrera Plazan merienda egongo da parte hartzaileentzat.

→ Laburrak

Herrira-ren bertso jaialdirako sarrerak, salgai

VILLABONA > Herrira-k bertso jaialdia antolatu du otsailaren 17rako. Arzallus, Lujanbio, Maia, Egaña, Agirre eta Soto ikusteko sarrerak salgai daude Iratzar, Iru Aldeta eta Amasa okindegian, eta Tolosako Rakun, 10 eurotan.

Jesusen Bihotzako sukaldaritza ikastaroa

HEZKUNTZA > Zizurkil-Villabonako Jesusen Bihotza ikastolako jangela kudeatzen duen Askora enpresak sukaldaritza ikastaroa antolatu du otsailaren 2an, larunbatean, Gipuzkoako Goi Ostalaritza Eskolaren instalazioetan. Ikasle eta gurasoak gonbidatu dituzte ikastarora, eta izena emateko, idazkaritzara deitu edo ikastolako webgunera sartu behar da.

Irudia > Amasa-Villabona



AURREKONTUEN INGURUKO BILKURA

Galder Azkue Amasa-Villabonako alkateak 2013ko aurrekontuen proiektua aurkeztu zuen herritarren aurrean Subijana Etxean, herenegun. Batzarrean herritar ugari izan ziren, alkatearen esanak gertutik jarraitzeko asmoz. Bertan ezta-

baidatutako aurrekontua, gaur aztertu eta bozkatuko dute udalbatzaren osoko bilkuran. Alderdi guztien arteko batzarra 19:00etan izango da, udaletxean. Udaletik herritarrek bertara gonbidatu dituzte. HITZA

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Autoa maite baduzu, gure garbiketa zerbitzua gustatuko zaizu

ARRIARAN GASOLINDEGIA
Lanbide 29
2840 Tolosa (GP) 4804
Tel: 943 67 41 28
mauka@mauka.com
www.mauka.com

25€ Prestazioa

berria Tolosa

www.mauka.eu

Triatloia zaletasuna baino gehiago denean

Egoitz eta Ilazki Zalakain anaiek, eta Jose Luis Zabala triatloiarik emaitza bikainekin itzuli dira Reinosatik (Kantabria). Neguko Triatloiko Espainiako Txapelketan

Rebeka Calvo

Tolosako Egoitz eta Ilazki Zalakain eta Berrobiko Jose Luis Zabala triatloiarik emaitza bikainekin itzuli dira Reinosatik (Kantabria). Neguko Triatloiko Espainiako Txapelketan hartu zuten parte asteburuan, eta elite mailan Egoitz Zalakainek bigarren egin zuen; Ilazki Zalakainek 30-34 urtekoen taldean Espainiako Txapelketa irabazi zuen, eta sailkapen orokorreko laugarren denborarik onena eskuratu; eta Jose Luis Zabalak 40-44 urteko adin taldean irabazi zuen Espainiako txapela.



Aurtengo helburua triatloiak egitea da. Egindako biak, beterano mailan, irabazi ditut»

JOSE LUIS ZABALA
Triaatlolaria

Hiruek eskarmentu handia dute triatloietan, nahiz eta Zabala neguko probak bakarrik dituen jomuga, beste biak udara begira entrenatzen baitira.

Zabala, dena den, azken hiru urteetan Getariako taldean arraunean ibili eta gero bueltatu da triatloietara: «Aurtengo helburua triatloiak egitea da, bi egin ditut jada, eta beteranoetan bietan irabazi dut. Kontentu nago».

Neguko triatloiak egin eta irabazi baditu ere bere ahulgunea eskia dela aitortu du berrobitarrek. «Prestaketa lanetan ibili naiz eta muskularki ere prestatuta nengoen proba egiteko, hala ere, eskiatzen ez naiz horren ondo ibiltzen. Reinosan elurra justukoa zegoen, makina pasa zuten, eta zirkuitua oso irregular zegoen».

Kantabriako lasterketan bost itzuli eman behar izan zituen eta zirkuitua egoerarik onenean ez egoteak momentu batean parte hartzaile guztiak pilotuta joatea ekarri zuen, eta Zabala erori ere egin zen. «Hor nire postua arriskuan ikusi nuen, ez nekien atze-

tik zer neukan eta buelta erdi bat nahiko panggal eginda aurreratu ere egin zidaten. Larritu nintzen, baina azkenean buelta eman nion egoerari».

Berrobitarra korrika eta bizikletan konstantea dela dio, hori dela bere indargunea, eta entrenatzen jarraitzen du otsailen bertan Anso bailaran (Aragoi, Espainia) izango den lasterketan parte hartzeko. «Proba horretan korrika eta mendiko bizikletan ariko gara, eta iraupen eskia ere egin beharko dugu; gogorra izango da», dio.

Triatloiak gogorak izanda entrenamenduak ere halakoak dira: «Aste sei aldiz entrenatzen dut; bi egunetan korrika egiten du, bi egunetan bizikleta, roleskin ere egun bat aritzen naiz, eta asteburuetan eskiatzera joaten naiz».

Martxoaren 3an bukatuko dira neguko triatloiak eta gero duatloietan hasiko dela esan du 2009an Bartzelonako Iron Man proba ere egin zuen berrobitarrek. Egia esateko hiru aldiz egin du proba gogor hori, baina 2009an lortu zuen bukatzea.

Zalakaindarrak, puntan

Zabala Tolosako Zalakain anaiekin joan zen Kantabriara. Neguan entrenatu egiten dira udako triatloiak egiteko, baina lasterketarik gabeko negua oso luzea egiten zaie antza, eta tarteka neguko probetan ere hartzen dute parte.

Egoitz Zalakain Reinosako proban txapeldunorde izan zen, ia bezala, eta kontentu dagoela dio; garaipenak beti dira poztekoak, baina Kantabriako probarekin batez ere, disfrutatu egin zuela dio. «Ez dut txapelketa bereziki prestatzen, baina txikitatik eskiatzen dudanez, ondo ibiltzen naiz proba horretan. Pozik nago, neguko triatloietan hasi nintzen, txikitari ere eskia egiten nuelako, eta gero hasi nintzen triatloi normalak egiten. Urtero Neguko Triatloien Espainiako Txapelketa egiten dut eta garai bateko probak gogoratzeko parte hartzen dut. Disfrutatu egiten dut, beste lasterketan baino askoz presio gutxiago dut», azaldu du.

Izan ere, Egoitz Zalakain profesionalekin batera lehiatzen da azken urteetan, nahiz eta berak ez duen triatloia lanbidetzat.

Urteetan proba hauek prestatzen, egiten eta irabazten emate-



Egoitz Zalakainek (ezkerrean) bigarren egin zuen Kantabriako Espainiako Txapelketan. HITZA

an kirolariaren motibazioak ere aldatu direla aitortu du: «Urte batzuk eta gero dezente aldatu da nire ikuspegia. Hasieran egiten nituen proba guztiak bukatzeak kristoren ilusioa egiten zidan, baina orain desberdina da; emaitzak lortzen joaten zara, eta gero ilusioa beste gauza batzuek ematen dute. Profesionalki honetan aritzen direnekin lehiatzen naiz



Danimarka, Ingalaterra eta Alemaniako Iron Man probak egin nahi ditut udan»

EGOITZ ZALAKAIN
Triaatlolaria

eta giroa ez da hasierakoa, lehiakortasunean asko nabaritzen da». Momentu honetan apirilera eta maiatza artean hasiko den denboraldia prestatzen ari da, baina «modu lasaian»; «orduak ematen ditut noski, baina ez da pistan erabat horretara egotea, entrenamendu lasaigoak eta luzeagoak dira».

Aurtengo helburuen inguruan galdetuta, bere nahia bi edo hiru Iron Man egitea da, erabakia oraindik erabatekoa ez bada ere. Abuztua eta iraila artean egingo ditu. «Oso gogorra izango da, baina urte guztia entrenatzen pasatzea Iron Man bakarria egiteko pena da. Bat baino gehiago egin ahal izateko funtsezkoa da egutegia ondo antolatzea, eta horretan ari naiz», esan du. Danimarkan, Ingalaterran eta Alemanian egingo ditu Iron Man probak. «Zaila da jakitea zenbat tarte utzi behar den batetik bestera, ni hiru hilabetetan hilero bat egingo dut, eta ikusiko dut, behar bada gehiegi izango da, baina saiatu nahi dut», azaldu du.

Ilazki Zalakain da hiruetan

gazteena. Kantabriako adin talde guztien artean lehenengoa izan zen, sailkapen orokorreko laugarren denborarik onena egin zuen, eta ondorioz, 30 eta 34 urtekoen artean Espainiako txapela jantzi zuen.

Ezusteko garaipena

Garaipena ezustekoa izan da Zalakain gazteenarentzat, eta lasterketan batez ere ondo pasa zuela nabarmendu du. «Korrika lehenengo taldearekin joan nintzen, pixka bat atzetik, baina bizikletarekin harrapatu nituen, eta gero bizikletan oso ondo egin nuen. Aldapan gora beste batekin joan nintzen, bakarrik joatea erabaki nuen arte, eta eskiatzera bakarrik iritsi nintzen», azaldu du. Ilazki Zalakain, anaiairenduan, txikitatik eskiatu izan du, eta beraz, txapelketako zati horretan eroso sentitu zela gaineratu du. Denbora orokorrean laurrera egitea ere ez zuen espero, eta horrek harritu du gehien.

Anaia bezala udara begira entrenatzen da eta Espainiako Txapelketa entrenamendu «normalak» eginda iritsi zela esan du. «Orokorrean entrenatzen ibili naiz, horrenbesteko presiorik gabe, baina oraingoan ondo ateratu da; probak korrika hasten dira eta

hor ibiltzen naiz okerrean. Baina aurretik hobeto egin dut».

Neguko triatloiak «oso politak» izaten direla gaineratu du eta gus-tura egiten dituela, «nahiz eta udara begira entrenatzen naizen». Garaipen honek gainera animatu egin du aurrera jarraitzeko, batez ere, espero gabeko garaipena izan delako asteburuak. Oraindik udako probak antolatu-



Udako probetara begira nago, baina garaipen honek neguko beste bat egiteko arra sortu dit»

ILAZKI ZALAKAIN
Triaatlolaria

tzen ari da eta burua ere horietan du, «nahiz eta emaitza hau ikusita neguko beste bat egiteko arra ere sortu zaidan».

Hiru kirolariek triatloia maite dute, baina, batez ere, kirola egitea. Lanetik ateratzerakoan entrenatzen, kirola egitera, joatea nolabaiteko askapena da beraien-tzat, lana bakarrik egitea tristea izango litzatekeela uste baitute. Eta triatloia zaletasuna izateaz gain, garaipen hauekin, poztasun iturria ere bada.

TOLOSako EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

SIMARTE 0
www.simarte0.com
www.simarte0.com

ORDEK EUSKOLA
www.ordek.com
www.ordek.com

Mundu Zabaltrako Zuzen
= Denigerretako Bigarren Neraketa
= ZIG - Larbide Talerra
= Batalleroak

euskaraz bizi nahi dugu
Matrikula epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Atsaureek agur esan diete ihoteei

Azken urteetan berreskuratzen ari diren garai bateko inauterien pertsonaiekin kalejira egin zuten atzo

Iñigo Terradillos Leitza

Joan dira kolorez, umorez eta zoramenez beteriko egunak. Eguneroko kezkek, betebeharrak eta arazoak albo batera uztea eta alaitasunez kutsatzea ahalbidetzen duten jaiek agur esan dute. Azken lau egunetan ederki gozatu ostean, beste urtebete itxaron behar dute leitzarrek hurrengo ihoteak heldu bitarte.

Bada, azken eguna izan arren, bazen atzokoan ere zer ikusi Leitzan. Erasote uzoan eginiko eskearekin ekin zioten egunari. Aurrekoetan bezala, etxez etxe aritu ziren alaitasuna zabalduz, eta ordainetan jatekoa eta edatekoa jasoz. Gaztetxoek jolasaz aritzeko aukera izan zuten puzgarrietan egun osoan, eta bazkaltzeko garaian Aurreran elkartu ziren herriarrak.

Arratsalderako hitzordurik esanguratsuenetako bat geratzen zen: atsaureen kalejira. Inork ez ezagutzeko moduan, eta izua zabalduz egin zuten agerraldia larraz edo zakuz jantzitako eta adarrez, buztanez edo lumez hornituriko pertsonaiek, soinu artean. Herriak berreskuratu nahi duen eta pixkanaka areagotzen ari den tradizioa.



Txarangak alaiturik egin zuten atsaureen kalejira. Herriar ugari parte hartu du aurtengoan, eta ikusmin handia sortu du. I. TERRADILLOS



Atsaureen artean askotariko pertsonaiek ikus zitezkeen: adardunak, motozerra eskuetan zeramatzatena edo asto eta guzti atera zirenak. I.T.

Areson, Berastegin eta Lizartzan, lekukoa hartzeko zain

Leitzako inauteri goiztiarren ostean, asteburu honetan beste hiru herritan ospatuko dituzte inauteriak

I. Terradillos

Batean amaitu eta bestean hasi. Leitzan izan ziren goiztiarrenak, eta segida beste hiru herri emango diete asteburu honetan inauteriei, hau da, Aresok, Berastegin eta Lizartzak.

Lizartzan, inauterien aurrekari moduan, antzerki, musika eta dantza emanaldia izan zuten pasa den larunbatean. Etzi hasi eta igandea bitarte moztarok, txantxoak, txarangak, gurdiak eta puske biltzeak nagusituko dira. Aurtengo egitarauan leku berezia izango du hil berria den Iñaki Zubeldia herriarrak. Lizartzako inauterien eta Ihaute dantzen

sustatzaile izandakoari omenalditxo egingo diote igandean. Horrez gain, igandeko bazkaria nabarmendu du Otsolar dantza taldeak eta herriarrak gonbidatu ditu bertan parte hartzera.

Areson eta Berastegin

Berastegin, bestalde, bi eguneko festa izango da. Gaztetxoak izango dira protagonista etzi, kalejira-rekin eta xenenarekin. Larunbatean, berriz, haurrentzako nahiz nagusientzako ekitaldiak izango dira. Amaitzeko, herriar guztiak elkartuko dira mahaiaren bueltan afaltzeko.

Areson, bestalde, hiru eguneko inauteriak izango dituzte, etzi hasi eta igandera bitarte, Lagun Artean elkartearen eskutik. Ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu dute, adin guztiei zuzendua.

Hiru herrietan moztarok jaztera eta kalera irtetera gonbidatu dituzte herriarrak.

● ibarraldea@hitza.info

↓ Egitarauak

ARESO

OTSAILAK 1, OSTIRALA

- 15:30. Gaztetxoek kalejira.
- 15:40. Kondairen kontaketa.
- 16:00. Dantzak plazan.
- 16:15. Kalejira herrian barrena.
- 16:30. Askaria.
- 18:00. Herriko eskea.
- 21:00. Lagun Artekoen afaria Pake Tokin. Txartelak Sastinean eros daitezke.

OTSAILAK 2, LARUNBATA

- 10:00. Lagun Artekoen gosaria Pake Toki elkartean.
- 10:30. Baserrietako eskea.
- 17:00. Karrozen desfilea.
- 19:30. *Zomorroak* antzezlanaren udaletxean.
- 21:00. Herri afaria Pake Toki elkartean.
- 23:30. Trikitilariak Pake Toki elkartean.

OTSAILAK 3, IGANDEA

- 14:00. Banabar txapelketa eta bertso bazkaria Larrea elkartean. Txartelak, Sastinean.
- Bazkalostean. Bertso saioa izango da, Iñigo Gorostazu eta Mikel Artola bertsolarien eskutik.

BERASTEGI

OTSAILAK 1, OSTIRALA

- 14:30-16:00. Gaztetxoak irtingo dira Berastegiko kaleetan

barrena, moztarotuta, soinu eta musikaz lagundurik.

- Ondoren. Guraso elkartearen eskutik, askaria.
- Ondoren. Xenenaren irteera.

OTSAILAK 2, LARUNBATA

- 17:00. Herriko haurren dantza emanaldia, pilotalekuan.
- Ondoren. Txokolatea.
- 19:30. Herri poteoa, batukadak eta trikitilariak alaituta.
- 21:00. Herri afaria, aparkaleku azpiko lokalean.



Herritarrak goi tentsioko linearen aurka azaltzera deitu ditu plataformak

Ezki-Itsaso eta Deikaztelu lotuko lituzkeen linearen trazatua zehaztu gabe dago oraindik

Iñigo Terradillos Leizta

Autopista Elektrikoaren Aurka Plataformak Espainiako Gobernuak eraiki nahi duen Ezki-Itsaso eta Deikaztelu arteko goi tentsioko linearen aurkako jarrera azaldu du beste behin, «herriaren garapenean atzerapausoa delako». Bada, batzarrera deitu dituzte Basaburua, Imotz, Atez, Araitz, Areso, Leizta eta Larraungo herritarrak eta udal ordezkariak euren jarrera azal dezaten. Lekunberriko tren geltokiaren goiko gelan izango da, larunbatean, 12:00etan.

Proiektua erabat zehaztu gabe dagoen arren, «argi dute burutu egingo dutela», plataformatik adierazi dutenaren arabera. «Ekainean Espainiako Gobernuak Red Electrica Españolari eskatu zion plangintza eguneratzeko eta egungo beharretara egokitzeko proiektu bat

aurkezteko», azaldu du Aitziber Bergara Leitzako plataformako kideak. «Kaltetutako herrietako udalek iragan abenduan proiektuaren inguruko informazioa eskatu zuten, eta ingurumenarekiko eragina neurtzen duen ikerketa egitea geratzen zela erantzun zuten; epe motzean izango dugu proiektuaren berri».

«Atzerapausoa da»

Proiektuaren zehaztapenak, beraz, oraindik ez dira ezagutzen, hau da, goi tentsioko linea zein eskualdeetatik igaroko litzatekeen ez dago zehaztuta. Aurreikusten den aukeretako bat Leitzaldetik igarotzearena da. Azpiegitura horren aurkako plataformak argi du «zonalde batetik edo bestetik igaro, proiektua kaltegarria» dela, eta Espainiako Gobernuak aurrera eramateko asmoa duela. «Ez dugu nahi ez gure herrirako ez beste inorako, osasunaren kontra doalako, herriaren garapenerako atzerapausoa delako, eta ez diogulako inongo etekinik ikusten», adierazi du Bergarak. Euren arabera, elektrizitatea leku batek bestera garraiatzea da bere funtzioa eta «arteko guztiak kaltea besterik ez lukete jasoko».

Hori dela eta, proiektua geldiaraztea eskatuz eta kontrako jarrera azaltzeko hainbat ekimen gauzatu dituzte. «Eusko Jaurilaritzarekin elkartu gara euren jarrera ezagutu asmoz, eta edozein dela trazatua defendatzen dutela esan ziguten». Nafarroako Gobernuari ere bilera eskaera egin ziotela, baina oraindik erantzunaren zain daudela salatu dute. «Dena den, proiektua defendatzen ari direla argi dago».

Bestalde, Autopista Elektrikoaren Aurkako Plataformak azaldu duenez, Nafarroako 200 udal eta kontzeju daude proiektuaren aurka, eta 500 pertsona esanguratsuk —ia 100 leitzarrak— sinatu dute *Altsasuko adierazpena* izenburupean goi tentsioko linearen aurkako jarrera adierazten duen idatzia.

Plataformatik esan dutenez, ezinbestekoa da herritarrek kontrako jarrera azaltzea proiektua gelditu ahal izateko: «2007ko proiektua, besteak beste, herritarrak aurka azaldu zirelako geratu zen; beraz, hau ere geratu dezakegu, baina horretarako garrantzitsua da ekimenetan herritarrek parte hartzea eta proiektuaren aurka gaudela argi adieraztea».



'Luze' zazpigarrenez ariko da Nafarroako Bertsolari Txapelketan. HITZA

Miguel Mari Eloseggi da ordezkari bakarra bertso txapelketan

31 bertsolari ariko dira, inoizko kopururik handiena, Nafarroako txapela janzteko lehian; larunbatean hasiko da

I. Terradillos Leizta

Larunbat honetan hasiko da Lizarran Nafarroako 41. Bertsolari Txapelketa, eta martxoaren 23an amaituko da Iruñean. Inoizko parte-hartzaile kopururik handiena izango du, 31 bertsolarirekin, eta horietatik bakarra leiztarrak, Miguel Mari Eloseggi Luze.

Txapelketak bederatzita saio izango ditu, eta bertsolari guztiak lehen faseko abiatuko dira, ia zoko txapelak, Julio Soto, izan ezik. 2011. urtetik Nafarroako Bertsolari Txapelketa bi urtetik behin egiten da. Azken finala Iruñean egin zen, Labrit pilotalekuan. Arrakasta handia izan zuen final horrek, pilotalekua goraino bete zen eta hainbat egun lehenagotik sarrera guztiak saldu egin ziren. Aurten finala berriro ere Iruñean jokatu da, baina kasu honetan Anaitasuna kiroldegian abestuko dute finalistek.

Horrez gain, kontuan hartu behar da aurten ez dela bakarrrik Nafarroako txapela jokoan dagoena. Izan ere, txapelketako lehen lau sailkatuek udazkenean izango den Bertsolari Txapelketa Nagusirako txartela eskuratuko dute.

Aurtengo txapelketaren leloak Nafarroako bertsolaritzaren iziera jaso nahi izan du. «Txapelketa, lehiatzen harago, oro har sare sozial gisa irudikatzen dugu», adierazi dute antolatzaileek. «Bertsolariek, gai-jartzaileek, epaileek, antolatzaileek lanetan laguntzen dutenean, bertso-eskolek kideek, bertsozaleek eta beste askok osatzen dute sare hori. Kultura ere horrela ulertzen dugu, giza harremanetan eta auzolanen oinarritzen den sare gisa».

Miguel Mari Eloseggi Luze leitzarrak zazpi aldiz parte hartu du Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Aurtengorako ere gogotsu dagoela azaldu du: «Ongi pasatzeaz, disfrutatzeaz noa, eta gogoz nago». Hori bai, Leitzako bertsolari gazteek ere parte hartzea gustatuko litzaikeela onartu du: «Bertso eskolan badira gazteak, baina ez dira ausartzen txapelketa parte hartzera».



Leitzan goi tentsioko linearen aurka eginiko manifestazioa. PABLO FEO

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

BEÑAT ARISTONDO MARITXALAR

(Aiora ikaslearen anaia)

*Izar bat agertu da
dizdiraz zeruan
keinuka ari zaigu
Ibarraldean
BEÑAT seaskan dago
bere lo gozoan
dizdirak argi dezala
betirako gure gogoan*



Uzturpe Ikastola

Uzturpe Ikastola

IBARRA, 2013ko urtarrilaren 30a



20°
9°

GOIZA	LAINOTUA
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	19°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak



**Zure giltzurruna
da gehiegikeriak
pairatzen dituen**

ZURE ORGANISMOA GARBITU

Alkatxofa, errefau beltza eta kamamila estraktuek zure organismoa garbitzen laguntzen duten ezaugarriak dituzte; gainera, modu progresiboan, pisua galtzen lagun dezakete.



Kupoi hau ekarri eta LEVANAT PLUS erostean FIBROKI gaileten kaxa bat emango dizugu opari Tolosako Naturhouse dendan (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795).

NATUR HOUSE
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jarrai gaitzazu Facebook orrialdean
www.facebook.com/Spain.NaturHouse

www.naturhouse.com

* Kupoia 2013ko otsailaren 28ra arte erabili daiteke **HTZT**